



EUSKAL FINALA



ERREALAK ETA ATHLETICEK KOPAKO TITULUA
LORTZEKO LEHIAN ARITUKO DIRA



SD EIBAR EMAKUMEZKOEN
1.MAILARA IGO DA



PORTUGALETE 2.B MAILARA
IGO DA PLAYOFF EXPRESS-EAN



KEPA ARRIETA,
ARABAKO FEDERAKUNDEKO
PRESIDENTE BERRIA

1/6

Zenbaki hau produktuaren arriskuaren adierazlea da: 1/6 Zenbakiak arrisku txikiagoa adieratzen du, eta 6/6 zenbakiak, berriz, handiagoa.

Kutxabank Kreditu Erakundeen Gordailuak Bermatzeko Funtsari atxikita dago. Funts hori urriaren 14ko 16/2011 Errege Dekretuan aurreikusita dago. Funts horrek gaur egun gehienez 100.000 euro bermatzen ditu gordailugile bakoitzeko.

KONTUA ETA TXARTELA DOAN

(ITN eta UTB %0)

Baldintzak:

- 600 euroko nomina edo 400 euroko pentsioa helbideratuta edukitzea.
- 6 ordainagiri zordunduta hiruhileroko likidazio-aldi bakoitzean.
- Online Bankako zerbitzua kontratatuta eta titularretako bakoitzaren telefono mugikorraren zenbakia jakinarazita edukitzea.
- Kontu honi lotuta dauden eta beren titularrenak diren txartel guztien kontsumo garbiak hiruhileroko likidazio-aldi bakoitzean, gutxienez, 300 eurokoa izan behar du edo 1.200 eurokoa likidazioaren aurreko 12 hilabeteetan.

* OK Kontuaren baldintzak hiru hilean behin berrikusten dira. Baldintzetako edozein ez betetzeagatik, sortzapenaren ondorengo hilabetean, (hiru hilabeteko) likidazioaldi bakoitzeko 24 euroko komisioa kobratuko da zuzenean. Baldintzak hiruhileko likidazio bakar batean ez betetzekotan, 3.000 euroko batez besteko saldoa edukita, UTB -%0,80 izango litzateke.

Kutxabank, SA. Kale Nagusia, 30-32, 48009 Bilbo. IFK: A95653077. Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatuta. 5226 Tomoa, 0 Liburua, BI-58729 Orria, 1 Folioa, 1. Inskripzioa.

Eskatu OK Plus Kontua.
OK bezeroentzako
komisiorik gabeko kontua*
doako Visa Dual
txartelarekin.

kutxabank

**ERRAZ
HURBIL
ORAIN**



3	EDITORIALA
4-5	BERRIAK
6-9	LEHEN MAILA
10	BIGARREN B MAILA
11	HIRUGARREN MAILA
12-13	KOPAKO FINALA
14	ERREGIONALA
15	OINARRIZKO FUTBOLA
16-17	EUSKADIKO SELEKZIOAK
18-19	EMAKUMEEN FUTBOLA
20-21	ARETO FUTBOLA
22	ENTRENATZAILEEN BATZORDEA

©:
EUSKADIKO FUTBOL
FEDERAKUNDEA
FEDERACIÓN VASCA DE FÚTBOL

Erredakzio Batzordea
Comité de Redacción
Luis María Elustondo,
Kepa Allica, Haritz Gallastegi,
Unai Zabaleta y Fran Rodríguez

Koordinaketa. Coordinación
Disenu eta Maketazioa
Diseño y Maquetación
Cantera Deportiva S.L.
Argazkiak. Fotografías
Federación Vasca de Fútbol

HAMAIKA
Euskadiko Futbol Federakundea
Julian Gaiarre 48 bajo
48004 BILBAO
Tfnoa: 94 473 19 00
webmaster@eff-fvf.eus
Depósito legal: BI-581-2014

Colaborador
Laguntzailea



Hamaika ez da bere laguntzaileen
iritziarantz erantzule egiten
Hamaika no se hace responsable
de la opinión de sus colaboradores/as

EDITORIALA

OSASUNA-EKONOMIA- FUTBOLA

Denbora dramatikoa, larria da gaur degungoa. Koronabirusak ez du amore ematen, eta albiste kezagarriak ematen dizkigu egunero, itxaropena kendu eta morala eta ilusioa ahultzen dituztenak.

Hor egon behar du gure lehenengo eta ezinbesteko ahaleginak. Ezin dugu honela jarraitu, gaixoeekin eta hildakoeekin. Guztiok egin behar dugu zerbait, ahal duguna, ezinezkoa baino gehiago, pandemia hau geldiarazteko eta normaltasunera lehenbailehen itzultzeko. Bestalde, ekonomian eragindako kalteak handiak dira, eta horietako batzuk oso zailak berreskuratzeko.

Esparru horretan, gure futbola larri zaurituta dago, are gehiago talde bakoitzak dituen baliabide urriak ikusita.

RFEFek berak zalantza egiten du, kontraesanetan erortzen da eta irtenbideak bilatzen saiatzen da, oskarbirik ez duen zerumugaren aurrean.

Aurrekontuak doitzea, gastuak ahalik eta gehien murriztea, aurrezteko politika zorrotza, elkarrekin lan egitea, kirol-emaitzen gaintetik, eta tsunami hau bizirik igarotzea, besterik ez zaigu geratzen. Aurrerago, beste momentu batzuetan egingo ditugu plan berriak eta finkatuko ditugu asmo handiko helburu erakargarriak.

Federazio hau zuen esanetara dago. Ez izan zalantzarik, kezkatzen zaituzten gaiak gurekin partekatuzko.

Bitartean, bihotzez, besarkada handi bat eta animo handia.

Luis María Elustondo.
Presidente Federación Vasca de Fútbol.



COVID-19AK KIROLEAN DUEN ERAGINA

Kepa Allica

Kirok-lehiaketan, lorpenik handiena eskuratzeko asmoz parte hartzen da, hau da, azkenean eskuratzen den postuari dagokion sailkapena eta saria.

Parte-hartze hori gauzatzeko, eta baldintza berberetan jokatzeko, arauak ezagutzea funtsezkoa da, lehiaketaren formatua, kirol-ondorioak eta horiek dakartzaten guztia; eta, informazio guztia izan ondoren, dena planifikatzea eta prestatzea, nahi den saria lortzeko (kategoriari eustea, igoera-fase batean lehiatzea, igotzea, beste lehiaketa batean parte hartzeko eskubidea duen postua eskuratzeko, etab.).

Planteamendu hori hankaz gora jarri da, gizarteko gainerako esparruak bezala, Covid-19ak eragindako pandemia iristean, eta kirol-federazioek bertan behera utzi behar izan dituzte lehiaketak, eta sailkapen eta kirol-ondorioak zehaztu.

Faktoreren bat aldatzen denean hartzen den erabakiak beti egingo die mesede edo kalte batzuei eta besteei. Ebazpen horren ardura izan duten erakundeen betebeharra izan da baloratzea hala unean uneko eragina, nola etorkizuneko, ahalik eta zuzenen, koherenteen eta homogeen jokatzeko, eta, ahal den neurrian, zorrotz egokitzeko hasieran azaldutako irizpide globalei, eragina baitute

kirol-lehiaketan.

Eskumena duen organoak edo ahalmen hori jaso dezakeen beste organo batek -gaitu ahal baita horretarako, dagokion administrazioako kirol-erakundeen laguntzarekin- legitimatu behar ditu erabakiak, eta hori ez du inork erabili behar kirol-lehiaketa bat lortzeko, ezinbesteko arrazoi batengatik araudia erabat bete ezin duelako.

Orain, kirol-ondorioak nola erregularizatu bilatu behar da, ohiko lehiaketa-ereduetara itzultzeko, edo osasun-eguzteko hau aprobetxatu aldaketak proposatzeko, betiere gure kirola klub bidez berriro aktibatu ahal bada.

KEPA ARRIETA, ARABAKO FUTBOL FEDERAKUNDEKO PRESIDENTE BERRIA

Kepa Arrieta bere zuzendaritza-batzordearen eta Arabako futbolaren laguntzarekin iritsi da esperientzia berri honetara, Arabako Futbol Federakundearen buru izatera. Agintaldi honen helburu nagusia da, federazioa modernizatuz, Arabak bere lekua eta garrantzia berreskuratzea, hala Euskal Herrian nola Estatuan.



Areto-futbolak lurralde historikoan zuen maila berreskuratzea, emakumezkoen futbola sustatzea, komunikazio-arloa bultzatzea... Kepa eta bere lantaldea lehen

minututik xede horiei begira egongo dira. Gasteiztik kanpoko ingurune handietan futbola eta areto-futbola sustatuko dira, urte hauetan galdu diren lizentzien eta kirolarien kopuru handi hori berreskuratzeko (Aiara, Arabako Errioxa, Arabako Lautada...).

Euskal Futbol Federakundearen sortzailea izan zen bere aitak jorratutako ildoari jarraituz, Kepak apustua egiten du Euskadiko Federakundearen eta euskal futbolaren hazkundearen alde.

IGOERA LAUKOITZA EUSKAL EPAILEEN BATZORDEAN DENBORALDI HONETAN

Denboraldi honetan maila igoera lau-koitza egon da Euskal Epaiileen Batzordean. Futboleant, Nahia Alonso marrazaina lehen mailara igo da, eta Ibai Rezola eta Aitor Barrio Bigarren B mailan arituko dira epaile lanetan. Areto-futboleant Kepa Díez Bigarren mailara igo da.

EUSKAL EPAILEA DEN DANIEL PALENCIAK ELEBERRI BAT ARGITARATU DU



Bigarren B mailako euskal epailea, Daniel Palencia, bere lehen eleberria argitaratu berri du “Los Malos Hombres” izenburuarekin.

Eleberri historikoa 1930ko Donostiako itunean girotuta dago.



YOUTUBEN BERROGEIALDIA ALAITZEN MAILA ALTUAREKIN

Berrogeialdian, Euskadiko Federazioak eta Entrenatzaileen Euskal Batzordeak online hitzaldi batzuk eman zituzten, eta une latzenetan laguntza eman zuten giroa alaitzeko eta futbola hurbiltzeko.

Ernesto Valverde, Unai Emery, Irene Paredes, Ainhoa Tirapu, Jonathan Camara... Gure kiroleko izen handiak Federazioaren YouTubeko kanaletik igaro ziren (EFF-FVF). Guztira 11 hitzaldi, 50 gonbidatu, 20.000 ikusle... eta esku-hartze interesgarrietako orduak, oraindik ere interesa duten guztien eskura YouTubeko kanalean. EFF-FVFeke eskerak eman nahi dizkie era batera edo bestera ekimen horretan parte hartu zuten guztiei -lanean jarraituko baitugu harekin-, eta laguntza eman baitzien gure kirolaren zale guztiei, berrogeialdia arintzen, eta futbola eta areto-futbola etxetara hurbiltzen.



ASTORE

DEPORTIVO ALAVES JAITSIERATIK HURBIL, COVIDEK ERAGINDAKO ETENAREN ONDOTIK

Babazorroak oso gaizki hasi ziren Ligan, koronabirusak txapelketa bertan behera utzi ondoren, eta ondorioz, Bigarren Mailara jaistekotan egon ziren.

Hamaika



**EZKUTU BERRIA
MENDEURRENEAN**

Urtarrilaren 23an taldeak 100 urte beteko ditu, eta, beraz, Deportivo Alavésekin irudi korporatiboa birdefinitzea erabaki du.

Deportivo Alaves taldeari ez zion batere onik egin pandemiak, Ligako etenaldiaren ondoren, sei porrot izan baitzuten ondoz ondo, eta azken unera

arte sufritu behar izan zuen mailari eusteko. Bolada txarra zela eta, Zuzendaritzak entrenatzailea aldatu behar izan zuen, eta Juan Ramon Lopez Muñiz iritsi zen Mendizorrotzako

aulkira, Asier Garitanoren ordean. Lau jardunaldi besterik ez ziren falta, eta txanda horrek nolobait geldiarazi egin zuen denboraldia ondo hasia zuen taldearen gainbehera larria.



Eskoriatza Kalea, 5 | 01013 Vitoria - Gasteiz | T. 945 27 90 11

**AUTOCARES | COCHES DE LUJO | TAXIS | LIMUSINAS
GRUPOS | EMPRESAS | ESCOLARES | EVENTOS**

ATHLETIC CLUB TALDEAK INDARRA GALDU, ETA EUROPAKO ATARIAN GERATU DA

Zuri-gorriak Ligako Europarako sailkatzeko aukerekin iritsi ziren azken hilabetera, baina indarrik gabe geratu ziren helburua lortzeko.

Hamaika



Athletic Clubak larrutik ordaindu zuen txapelketaren azken txanpan urte gogorra, Kopako finalerako sailkapenarekin, eta Europako postuetan

egoteko atarian geratu zen. Zuri-gorriek huts egin zuten etxean, Leganesen aurrean, Ligako azken aurke jardunaldian, eta, horrenbestez, alde batera utzi behar izan zuten

ARITZ ADURIZEN AGURRA SAN MAMESEN, MITO BIHURTUTA

Aurrelari beteranoak (39 urte), Euskal Selekzioko golegilerik onenak, pandemiaren erdian jakinarazi zuen futbola utziko zuela, eta klubak omenaldi hunkigarria egin zion San Mamesen agurtzeko. Beste bi jokalarri emblematikok ere amaitu dute ibilbidea: Beñat Etxebarriak eta Mikel San Josek.

kontinente zaharrean berriro lehia-tzeko kirol-ametsa. Gaizka Garitano ez zuen ia errotaziorik egin, eta freskotasun pixka bat falta izan zuen, beti aurpegia eman zuen taldean.

EL HOTEL GRAN BILBAO
es una factoría de emociones
donde te invitamos a formar
parte de nuestro Lifestyle, con
un estilo de vida saludable,
deporte y arte en cada rincón
del hotel.

Nuestras habitaciones están valoradas por la comodidad, luminosidad y el descanso que necesitas. Además, podrás disfrutar de nuestro desayuno buffet con cocina en vivo y con recetas healthy diseñadas por una nutricionista. En nuestro restaurante podrías disfrutar de la gastronomía local, sabores internacionales y de opciones saludables, así como de menús especiales para celebraciones.

HGB
HOTEL GRAN BILBAO



#HotelGranBilbao @HotelGranBilbao

Calle Indalecio Prieto 1 | 48004 Bilbao | 944 32 85 75 | hotel@hotelgranbilbao.com

SD EIBAR TALDEAK BERE KIROL-PROIEKTUA LEHEN MAILAN SENDOTU DU

Eibar taldeko jokalariek lortu dute seigarren denboraldi jarraian irauteko helburua, eta, beraz, Estatuko futbol profesionaleko elitean jarraituko dute.

Hamaika



Jose Luis Mendilibar bere taldearen aurrekontua eta masa soziala biderkatzen dituzten klubekin lehiatzen ohituta dago, eta denboraldi honetan ere

ondo erakutsi du. SD Eibar hamaugarren postuan amaitu zen, 42 punturekin (jaitsiera-postuen gainetik sei postura), Covidek markatutako kanpainan. Geldialdiaren

ondoren, elkarren segidako bi garai-
pen kateatu ziren, Valentziaren eta
Granadaren kontra, eta, ondorioz,
arrakala egin zuten taulako eremu
arriskutsutik urruntzeko.

30.000 BIZTANLE BAINO GUTXIAGO ETA BI TALDE LEHEN MAILAN

SD Eibarren kirol “miragrosa” salto kualitatibo eman du denboraldi honetan, emakumezkoen taldea estatuko gorengo mailara igotzearekin.

Horri esker, 28.000 biztanle dituen gipuzkoako herri honek, bigarren mailako bi taldez gosatzeko aukera izango du. Berri ezin hobea etengabe hasten dagoen taldearentzat.



Goco Tour

Barrio Arregui - Polígono Cóndor - Edificio C
48340 AMOREBIETA

Tfno.: (+34) 94 630 82 50 - 24 horas: **665 295 623**

E-mail: gocotour@gocotour.com - www.gocotour.com

- **Viajes: NACIONAL e INTERNACIONAL**
- **BODAS, CELEBRACIONES, CONGRESOS, etc.**
- **Vehículos de: 7, 18, 22, 29, 37, 40, 55, 59, 71 Plazas**
- **ADAPTADO MINUSVÁLIDOS (PMR)**
- **Servicio de TAXI**

REAL SOCIEDAD SEIGARREN POSTUAN AMAITU DA, ETA EUROPA LEAGUE-A JOKATUKO DU HURRENGO DENBORALDIAN

*Talde txuri-urdina
denboraldiko sentsazio-rik
handienetako bat izan da eta,
Covid-ak eragindako
geldialdiaren ondoren,
Europako plaza ziurtatu zuen.*

Hamaika



Azken jardunaldia amaitzeko hiru minutu falta zirela Januzajek lortutako golari esker, Real Sociedad Ligako seigarren postuan amaitu da, eta

Europako plaza ziurtatu du. Merezitako saria jaso du denboraldi erregular zoragarri batean, gipuzkoarrak Champions txapelketarekin amets egitera iritsi baitziren. Osasun-krisiak

**ATHLETICEKIN
HITZARMENA KOPAKO
FINALEAN PUBLIKOA
EGON DADIN**

Errealeko eta Athleticen presidentek, Jokin Aperribay eta Aitor Elizegi, komunikatu bat sinatu zuten Espainiako Futbol Federakundeari finalean publikoa egon dadin eskatuz. Biek kopako finalean "Cartuja"-ko estadioa publikoz beteta ikusi nahi dute.

eragindako geldialdiaren ondoren, taldeak uste baino gehiago sufritu zuen Europako postua lotzeko. Denboraldiak, Kopako finalerako sailkapenarekin, ilusioa piztu dio zaleei.

Distribuidor oficial:

FAMILIA
LUIS CAÑAS
BODEGAS Y VIÑEDOS

AMAREN

Nuestra especialidad, los buenos VINOS.



Teléfono 943176075
aral@aral97.com

aral97.com

BILBAO ATHLETIC, BIGARREN MAILARA JAUZI EGITEKO ATARIAN, JAITSIERARIK GABEKO DENBORALDIAN

El filial rojiblanco cayó eliminado en el play off exprés de ascenso. El resto de equipos vascos de 2ªB se salvó al suspenderse la Liga por el coronavirus.

David Novo

Azken zortzi urteotan, Bilbao Athleticek mailaz igotzeko laugarren play offa jokatu zuen, eta Bigarren B Mailako II. Multzoko euskal talderik onena izan zen, Espainiako Federazioak bukatutzat eman baitzuen 2019/20 Ligako fase erregularra, pandemiaren ondorioz soilik 28 jardunaldi jokatu ondoren. Federazioaren erabaki horrek gosea berdindu gabe utzi zituen Sanse eta Amorebieta taldeak, ordurako donostiarrek eta



Bilbao Athletic-Badajoz partiduko irudia, play offean

zornotzarrek eskuratzekotan baitzizuten igoerarako borrokatzeko aukera ematen zuten lehen lau leku horiek. Alabaina, Arenas (18.) eta Real Unión (17.) bi talde historikoek beste urtebetez eutsi zioten kategoriari, RFEFek erabaki baitzuen ez zela jaitzierarik egongo. Era berean, Alaves B (11.), Barakaldo (14.) eta Leioa (15.) taldeek mailari eustea

lortu zuten, une horretara arte, saikapenari begira, gure ordezkariarentzat aski zaila ematen zuen denboraldian.

Azken partida ofiziala jokatu eta lau hilabetera, Bilbao Athletic Algecirasera joan zen uztailean, play off espresa egin zen egoitzetako batera. Nuevo Mirador-en Badajoz (IV. multzoko hirugarren sailkatua) taldearekin neurtu zen lehen txandan, eta harekin berdindu zuen, gol bat sartuta, arauzko 90 minutuen amaieran. Luengok aurretik jarri zuen Bilbao Athletic 17. minutuan gola sartuta, baina, hamar minutu geroago, Vázquezek berdinketa eskuratu zuen bere taldearentzat. 64. minututik aurrera gizon bat gehiago izan arren, bizkaitarrek ez zuten lortu Badajoz irabaztea, eta, beraz, penaltietan erabaki zen, luzapenaren ondoren. Extremadurako taldeak gehiago asmatu zuen hamaika metroko distantziatik, bai eta 6-5 irabazi ere.

 Sport·designer


 GRUPO CAMPUS

precio / prezioa
9,90 €

Diseño de ejercicios de entrenamiento, simulaciones de situaciones de juego en movimiento, creación de jugadas de estrategia, creación de formatos de convocatorias, books de ejercicios y estrategia, acceso a contenidos y formatos on-line, etc...

Disponible en Euskera – Castellano.

Más información: www.sport-designer.com





Portugaletek igoera ospatzen du Sarrienako zelaietan

PORTUGALETE BIGARREN B MAILARA IGO DA HIRUGARREN ALDIZ BERE EHUN URTETIK GORAKO HISTORIAN

Portugaletek hirugarren aldiz jokatuko du Bigarren B Mailan, bere ehun urtetik gorako historian gehien espero den igoera lortu ondoren. Sestaori irabazi zion finalean (1-0).

David Novo

Desiratutako eta nekez lortutako emaitza. Portugaleteko taldeak aurrendenboraldia hasi zuenetik, denboraldiaren helburu nagusia bete ahal izan duen arte, hamabi hilabete igaro dira, mundu mailako pandemia bat izan da, eta euskal taldearen play off espreseko final handia 7 egunez atzeratu da.

Ezequiel Lozaren taldea lehen sailkatua zen 28. jardunaldira iritsi zenean, hau da, Covid-19ak sortuta-

ko krisiaren aurretik jokatu ahal izan zen egutegi erregularreko azken eguna. Sestao Riverrekin berdinduta zegoen, baina goal-averaje berezi hobearekin, eta Vitoria eta Basconia taldeak hirugarren eta laugarren postuan zeuden, hurrenez hurren. Koronabirusaren ondorioz, RFEFek mailaz igotzeko fasearen formatua aldatu zuen, eta lurralde bakoitzeko taldeek elkarren kontra jokatu behar zutelako agindu zuen (lehenengoa laugarrenaren aurka, eta bigarrena hirugarrenaren aurka), eta baldintza bat jarri zuen: berdinketak mesede egingo ziola hobeto sailkatutakoari. Leioako Sarrienako instalazioetan, igoera lortzeko 'final-four'-a jokatu zen bi asteburutan. La Floridako taldeak 1-0 irabazi zion Basauriko klubari, eta River-ek golik gabe berdindu zuen Eibarko filialarekin.

Alabaina, Portugaleteren eta Sestaoren arteko final handia izan

3. MAILARA EZ DA INOR JAITSIKO

Covid-19ak eragindako osasun-alertaren ondorioz denboraldia amaitzea ezinezkoa izan zenez, maiatzean Euskadiko Futbol Federakundeak bukatutzat jo zituen autonomi erkidegoetako lehiaketak, eta, gainera, ez zuen jaitsierarik egin; beraz, Deusto, Lagun Onak eta Ariznabarra taldeek hirugarren mailan jarraituko dute, azken hiru postuetan egon arren.

baino lau ordu lehenago, birusak eragindako positibo bat izan zen Portugaleteko futbolari baten ingurune hurbilean, eta, ondorioz, 7 egunez atzeratu behar izan zen talka, segurtasuna bermatzeko.

Abuztuan sarturik, Portugaleteko taldeak Sestao gainditu zuen (1-0), eta, horrenbestez, Brontze Mailara jauzi egin duen Hirugarren Mailako azken kluba izan da denboraldi ahaztezin eta betiereko honetan.

JUAN ANTONIO LARRAÑAGA: "KOPAKO FINALA DENBORALDIA AMAITU AURRETIK JOKATU BEHAR ZEN"

Juan Antonio Larrañaga (Azpeitia, 1958) Realeko ikurretako bat da. Nortasun handiko jokalaria izan zen. Kapitaina. Espainiako Ligan errenkadan neurketa gehien jokatu duen futbolaria da: 202 partida guztira. Realak irabazi duen Kopa bakarrean garaipenaren penaltia sartu zuen.



nuen eta bidean ez nuen iritziz aldatu. Gola sartu nuenean poz handia hartu nuen.

Aipatu duzun bide horretan hankak dardarka al zenituen?

Bai. Ardura handia da. Zale asko daude zuk egiten duzunari begira. Huts egiteko aukerak beldurra ematen du. Jokalari guztiok sentitzen dugu pisu hori. Onenek ere bai.

Ospakizunak nolakoak izan ziren?

Ikaragarria izan zen. Realak bi liga irabazi zituen urte gutxi batzuk lehenago eta badirudi liga irabazten denean Kopa txiki geratzen dela. Baina nik ez dut horrela pentsatzen. Realak irabazitako lehen Kopa izan zen. Jarraitzaileak asko poztu ziren. Gipuzkoa guztia etorri zen Donostiara ospatzera. Egun handia izan zen.

Finalak jokatu egiten dira edo irabazi egiten dira?

Finalak irabazteko jokatzeko dira. Zaragozan ez ginen faboritoak. Atletico Madrilek irabaziko zuela zirudien eta ezustekoa eman genuen. Hurrengo urtean berriz sailkatu ginen finalerako. Madrilen jokatu genuen Bartzelonaren kontra. Orduan gu ginen faboritoak. Denboraldi bikaina osatu genuen. Baina galdu egin genuen. Finala galtzen duen taldea ezer barik geratzen dela dirudi, baina finaleraino iristea oso da garrantzitsua.

Euren taldea kopa bat altxatzen inoiz ikusi ez duten zaleen eta klubaren arteko lotura sendotzeko garrantzitsua da irabaztea.

Asko balio du. Athletici eta Realari bakarrik ez aurtun protagonista izan diren beste talde askori ere ikaragarri eman die Kopak. Ilusio handia sortu du zenbait taldeetako jarraitzaileen artean. Realeko eta Athleticeko zaleak ere pozez gainezka ikusi ditut. Erotu beharrean. Horrek indar handia ematen die klubei.

Aurtengo finala ez da jokatu. Ez dakigu noiz jokatu den. Zuek tokatzen zen egunean jokatzearen aldekoa zinen edo atzetzearen alde egin zenuen apustu?

Jendearekin jokatzeko da politena. Taldeak iristen dira finalera baina zaleek lagundu egiten dute. Hala ere, nik uste dut denboraldia amaitu behar dela txapelketa guztiak jokatu. Liga zale barik jokatu bada Kopa ere zale barik jokatu beharko litzatekeela iritzi diot.

Bi euskal talde aurrez-aurre final batean handia da oso.

Betirako geldiduko den finala da. Espero dezagun zaleekin jokatzea eta egun eder bat izatea euskal futbolarentzat. Irabazten duen taldearentzat ahaztezina izango da, baina uste dut irudi ona eman behar dugula.

Galtzen duen taldeko zaleak bizi guztirako zama izango du...

Hala izango da bai... (kar-kar).

Haritz Gallastegi

Zein oroitzapen dituzu Realak Atletico Madrilen kontra irabazitako Kopako finalaz?

Aspaldiko kontuak dira (kar-kar). Egun ederra izan zen. Gogorra. Bero handia egiten zuen Zaragozan. Asko sufritu genuen. Realak azken unera arte borrokatzen du eta penaltietan irabazi genuen. Sekulako poza hartu genuen.

Garaipenaren penaltia sartu zenuen. Txandako laugarrena jaurtitzea egokitu zitzaizun. Zer sentitu zenuen?

Partidaren luzapena bukatu zenean denok elkartu ginen penaltiak nork jaurtiko zituen erabakitzeko. Nik baiezkota eman nuen. Une latza eta, era berean, ederra da. Zelai erditik penalti puntura arteko bidean gauza asko pasatzen diren burutik. Argi nuen zer egin behar



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

Julian Gaiarre 48 bajo
48004 Bilbao
Tlf.: 94 473 19 00
Fax: 94 473 22 21

La información en un

click



Web

www.eff-fvf.org

Twitter

@EFF_FVF

Instagram

EFF_FVF

DANIEL RUIZ BAZAN: “ZALE BARIKO FINAL BAT EZ DA FINAL BAT”

Daniel Ruiz Bazan “Dani” (Sopuerta, 1851) da Athleticen azken Kopa altxatu duen kapitaina. Diego Armando Maradonaren Bartzelonari irabazi zion finala talde zuri-gorriak Endikak sartutako golari esker. Golegile txikiak oraindik gogoan dauka Madrildik Bilbora itzuli zirenean gabarran bizi izan zuten festa. Milioi bat lagun inguruk egin zion harrera talde txapeldunari.

Haritz Gallastegi

Nola gogoratzen duzu Athleticen irabazi zuen azken Kopako finala?

Poz handia eta ilusio ikaragarria sortu zuen garaipena izan zen. Ez dut esango ezustekoa izan zenik. Izan ere, Athleticen liga irabazi zuen urte hartan. Kontua da aurrean genuen Bartzelona oso indartsua zela. Goi mailako jokalariak zituen. Ia guztiak euren herrialde-etako selekzioetan aritzen ziren. Kopa inoiz irabazi ez genuen jokalarionantzatzat lorpen handia izan zen.

Neurketa amaitu berritan zelaian egon zen guda ahaztea izango da onena?

Bi taldeetako jokalariaiek genuen tentsioaren ondorioa izan zen. Ez nioke inori errua botako. Akatsak guztiok egiten ditugu. Nik ez dakit zer gertuko zen guk galdu izan bagenu. Kontua da irabazi egin genuela eta horri eman behar zaio garrantzia. Bartzelonak ez zuen galdu neurketa ondorengo iskanbilagatik. Athleticen irabazi zion. Ez ziren kapaz izan guri aurre egiteko.

Gabarran ospatu zenuten Bilboko errekan zehar. Han bizitako hitzez azaldu daiteke?

Oso zaila da, ia ezinezkoa. Sentipen berezia da oso. Nire bilobari azaltzen ahalegintzen naiz baina uste dut berak ezin duela ulertu gabarran gindoazenok sentitzen genuena: erreka bazterrak gainezka, udaletxeko harrera, Begoñan bildu zen jendetza... nik beti esan



ohi dut egun horretan guztiok egin genuela bat. Erljio ezberdinetako jendea, partida politiko ezberdinetako boto emaileak... denok geunden han. Ahaztezina izan zen. Gogoratzearekin bakarrik oiloipurdia jartzen zait. Ederra izan zen.

Irabazteak jarraitzaileak batzen ditu eta klubaren eta euren arteko lotura sendotzen du.

Ni jokalaria nintzen eta asko gozatu nuen. Baina, era berean, txapelketak irabazteak arrastoa lagatzen du. Gazteek ikusten dute Athleticen txapelketak irabaztea ez dela ezinezkoa. Guretzat geroz eta zailago da baina ezin da etsi.

Athleticen azken hamahiru urteetan jokatu duen laugarren Kopako finala izango da. Baina oraingoa Realaren kontra izango da. Derbia. Horrek bereziago egiten du edo final guztiak dira ahaztezinak?

Final urardotua izango da. Zalerik gabeko final batek ez dauka emoziorik. Ezohikoa eta ederra izan beharko litzatekeena ez da hala izango. Jende gabeko final bat ez da final bat. Partidari dago-kionez edozer gauza gerta daiteke. Txapelketa eten zenean Real maila hobean zegoela zirudien baina final batean indarrak asko parekatzen dira: jokalarien urduritasuna, epaileen erabakiak... gauza asko hartu behar dira aintzat. Final orekatua espero nuen.

Galtzen duenak urteetan entzun beharko du...

Bai, duda barik. Bi taldeetako zaleen artean lehia dago. Baina lehia polita dela iritzi diot. Txantxarako gogoia izatea ona da. Beti ere neurria galtzen ez bada, noski.

URGATZI, AURRERA ETA ANAITASUNA TALDEEK KATEGORIA NAZIONALERA JAUZI EGIN DUTE

Urgatzik (Araba), Ondarroako Aurrerak (Bizkaia) eta Anaitasunak (Gipuzkoa) hirugarren mailan jokatu dute datorren urtean, bakoitzak bere ligako lehen postua eskuratu ondoren.

Hamaika

Urgatzi, Aurrera eta Anaitasuna beren lurralde-
ligetako buru ziren koronabirusak sortutako alarma-egoera ezarri zenean, eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako federazioek erabaki zuten hiru klub horiek kategoria nazionalera igo behar zutela, lehiaketak behin betiko bertan behera geratu baitziren.

Gasteizko Lasarte Olabide Ikastolari lotuta dauden Urgatziko arabarrek historia egingo dute hurrengo denboraldian, Hirugarren Mailan lehen aldiz jokatura. Pandemia hasi arte Lehentasuneko mailan jokatu-tako 25 jardunaldien ondoren, Amurriori lau puntu eta Gasteizko Aurrerari hamalau puntu ateratzen zizkionten, eta horiek ziren, hain zuzen, titulua lortzeko faborito nagusiak.

Bizkaian, lehen sailkatua Ondarroako Aurrera izan zen. Hala, kostaldekoak Estatuko mailara itzuliko dira, Ohorezko Mailatik arin igaro ondoren (bi kanpainatan besterik ez dira egon, Gipuzkoako lurraldeko mailatik heldu ondoren). Covid-19aren aurretik, Zaldupetako puntu bakarra ateratzen zioten Elorriori eta bi Getxori.

Igo den hirugarren taldea Anaitasuna da. Azkoitikoek dagoeneko ezagutzen dute Hirugarren Maila. Osasun-krisia piztu zenean, Gipuzkoako Ohorezko Mailako buru ziren, Eibar B-rekin berdinduta eta Hernaniri puntu bat aterata, ligarik zirrargarrietako batean.



Urgatzi (Araba)



Aurrera (Bizkaia)



Anaitasuna (Gipuzkoa)

SANTUTXU ETA GASTEIZKO AURRERA GAZTEEN OHOREZKO MAILARA IGO DIRA. ALAVES B, SANTUTXU B ETA INDARTSU, NAZIONALERA

Santutxuk, binaka, Aurrera, Alavés B eta Indartsu taldeek lortu dute igoera. Bi Ohorezko Mailara eta beste hirurak Nazionalera.

Fran Rodríguez

Denboraldi irregular honetan, Santutxu izan da gazteen kategorian saririk handiena jaso duen kluba. Bilboko klubak gazteen kategoriako bere lehen bi taldeak igotzea lortu du. Bata Ohorezko Mailara eta bestea Nazionalera. Bestalde, Gasteizko Aurrerak ere saria jaso du, gazteen elitean jokatu baitu; eta Euskal Ligako lehen sailkatua izan den Alaves B eta hirugarren postuan geratu den Basauriko Indartsu taldeak, biak ala biak kategoriaz nazionalera lehia-



Santutxu, irabazle handia, bi igoera eskuratuta

tuko dira. Ohorezko Mailari dagokionez, euskal taldeek oso emaitza onak izan dituzte. Amaitzeko bost jardunaldi falta zirela -orduan utzi baitzen bertan behera-, bakar bat ere

ATHLETIC CLUB, LEHENA GAZTEEN OHOREZKO MAILAN ETA KADETEEN EUSKAL LIGAN

Pandemia dela eta, ezin da txapeldunetz hitz egin, baina Athletic Clubek ikusi du bere lehen bi taldeak, gazteak eta kadeteak, Ohorezko Mailan eta Euskal Ligan nagusitu direla, eta puntu asko atera dizkietela ondoren sailkatutakoei.

ez zen jaisteko postuetan. Athletic, Real Sociedad, Eibar, Alaves, Danok Bat eta Arenas lehen zazpi sailkatuen artean zeuden. Eta Leioa, hamaikagarrena.

joan-etorriaren atsegina

vallina
BUS AUTO

IBILGAILUAK GIDARIAREKIN

943 39 38 48
Donostia-San Sebastián

autoak
autobusak
microbusak

LAUDION EGIN ZEN HAURREN ETA KADETEEN ESTATUKO GIZONEZKOEN TXAPELKETAKO BIGARREN FASEA

Euskadi azpi-14 eta azpi-16 taldeek Estatuko bigarren faseko partidak jokatu zituzten Laudion martxoaren 6tik 8ra bitartean. Ez zuten lortu sailkatzea.

Hamaika

Koronabirusaren pandemia hasi baino astebete lehenago Arabako Laudio herrian egindako Estatuko txape-

lketaren bigarren fasean, haurren eta kadeteen kategoriako gizonen selekzioek ez zuten baliatu anfitorio zirela, eta finalurrekoetatik kanpo geratu ziren. Gaztela-Mantxaren aurkako porrota oso garesti atera zitzaizen bi talde autonomikoei.

Jordi Telletxeak entrenatutako 14 urtez behekoen selekzioak 3 puntu zituen, Logroñon jokaturako lehen fasean lortuak, eta bi partidak irabazi behar izateaz gain, besteen emaitzen zain gelditu behar zuen. Gaztela-Mantxako taldearen aurrean galdu egin zuen (0-1), eta, Melillari gol-kopuru handia sartu baitzion ere (7-0), hori ez zen aski izan beste

txandara pasatzeko.

Egoitz Mendizabalek zuzendutako 16 urtez azpikoen taldea ez zegoen inoren menpe azken fasera iritsi ahal izateko, Logroñon 6 puntu lortu ondoren. Ellakuriko zelaian gol-kopuru txikiengatik galdu zuen Gaztela-Mantxako taldearen aurrean (0-1), alde handiz irabazi zion Melillari (6-0), eta, bederatzi puntu eskuratuta, atarian gelditu zen titulua lortzeko borrokan aritu ahal izateko.

Apirilaren 17tik 19ra arteko ateburuan izatekoa zen hori, baina azkenean ez zen egin osasun-krisia zela eta.



Azpi-14



Azpi-16

ZUBIETAN ETA FANDERIAN IZAN ZEN ESTATUKO 15 ETA 17 URTEZ BEHEKOEN EMAKUMEZKOEN TXAPELKETAKO BIGARREN FASEA

EAEko emakumezkoen bi selekzioek otsailean erakutsi zuten beren indarra, eta azken faserako sailkatu ziren, Covid-19aren ondorioz jokatu ez zen bazen ere.

Hamaika

Koronabirusaren pandemiak galarazi egin ziren Euskadiko emakumezkoen bi selekzioei, 15 urtez azpi-

koari eta 17 urtez azpikoari, beren kategorietako Estatuko titulua lortzeko borroka egitea. Euskadiko bi taldeek bigarren fase ikusgarria osatu zuten, otsailaren erdialdean, Gipuzkoan (Real Sociedad taldearen instalazioak Lasarte-Orian eta Fanderman), eta Estatuko lau talderik onenen artean jarri ziren.

Ametz Aguayok entrenatutako 15 urtez behekoen selekzioak garaipenak lortu zituen tarteko fasean, Asturiasko Printzerriko (4-1) eta Extremadurako (1-0) taldeen aurrean, eta 6 puntu lortu zituen, Lezaman jokaturako lehen fasean eskuratutako 3 puntuei gehitzeko.

Nekane Quiñonesek zuzendutako 17 urtez azpikoaren taldeak ere bi garaipen lortu zituen Asturiasko (3-1) eta Extremadurako (6-1) taldeen aurrean, eta azken faserako sailkatu zen 12 punturekin, sei puntu eskuratu baitzituen txapelketako lehen txandan.

Ekainaren 5etik 7ra arteko astebururako zeuden aurreikusita finalerdiak, baina ezin izan ziren egin Covid-19ak eragindako osasunkrisiagatik. Era berean, pandemiaren ondorioz, 12 urtez behekoen kategoriako emakumezkoen eta gizonezkoen Estatuko txapelketak bertan behera utzi behar izan ziren.



Azpi-15



Azpi-17

ATHLETIC ETA REAL SOCIEDAD GOIKO ALDEAN BORROKAN

Ligako lehiaketa amaitzeko bederatzi egun falta zirela, Athletic Club eta Real Sociedad sailkapeneko goiko postuak lortzeko borrokatzen ari ziren.

Fran Rodríguez

Denboraldia lehiaketaren azken laurdenean sartua zen, eta Athletic Club eta Real Sociedad, sailkapenaren goialdean egoteko lehiatzeaz gain, euskal talderik onena izateko borrokatzen ari ziren.

Gero eta zailagoa da Ligako titulua lortzeko eta Champions League-a jokatzeko borrokan sartzea, baina jokalarari zuri-gorriek eta zuri-urdinek goiko postuetan zeuden, ezin ukituzko Bartzelona eta Atletico de Madrid taldeen ondoko bigarren pelotoi horretatik gertu.

Pandemiak eragindako etenaldiaren unean, bederatzi jardunaldi falta ziren, Bilboko kluba bosgarren postuan zegoen, eta Gipuzkoakoa seigarrenean. Lehen hiru plazak, Levante barne, oso urrun zeuden, baina ez, ordea, laugarrena, Deportivok betetzen zuena bi puntuko aldearekin, Euskadiko bi taldeak hori eskuartzeko borrokan ari baitziren.

Datorren denboraldirako, Athleticek Angel Villacampa berritu du entrenatzaile gisa; Real Sociedad taldean, berriz, ez da hala izango, kirol-arduraduna aldatuko baitu: Gonzalo Arconadaren ordez Natalia Arroyo jarri dute.



Bi euskal taldeek denboraldi bikaina egin dute

ATHLETICEK KOPAKO FINALERDIAK JOKATUKO DITU

Bi euskal taldeek protagonismo handia izan dute Erreginaren Kopan. Aurreko denboraldian, Real Sociedad taldeak kopa txapelketa irabazi zuen, eta, horregatik, Superkopa jokatu ahal izan zuen; finalerdiak irabazi zituen, baina finalean Bartzelona ahalguztidunak alde handiz irabazi zion. Bitartean, aurtengo kanpainan Athletic Cluba hobeto ibili da. Talde zuri-gorria, oraingoz, finalerdietara iritsi da; oraindik ezin izan dira jokatu, futbola bertan behera utzi baita, baina aurreikuspenen arabera hurrengo denboraldian jokatu da. Athleticek partida bakarra jokatu behar du Las Gaunas futbol-zelaian Logroñoren aurrean; beste finalerdia, berriz, Sevillak eta Bartzelonak jokatuko dute.

ATHLETIC B LIDERRA DA ETA EIBARREK LEHEN MAILARA IGOTZEA LORTU DU

Eibar Lehen Mailako talde berria da, Bigarren Mailako bigarren postua eskuratu ondoren. Lidergoa Athletic Club B-k eskuratu zuen liga bikain batean.

Fran Rodríguez

Bigarren Maila, Iberdrolaren Erronka izenaz ere ezaguna dena, euskal kolorez bete da ezbairik gabe, eta Bartzelonaren filiala izan da



Liga Erregularra lehen postuan amaitu zuen Athletic B-k

AÑORGAK BIGARREN MAILAKO PLAY OFFA GALDU ZUEN, ETA REAL SOCIEDAD B 1. MAILA NAZIONALERA IGO DA

Añorgak Lehen Maila Nazionaleko lider izatea lortu zuen, eta Bigarren Mailara igotzeko play offa jokatu zuen, baina Valentziako UD Aldia taldearen aurrean erori zen (1-0).

Fran Rodríguez

Lehen Maila Nazionalean, borroka bizi izan zen bi talderen artean lehen postua eskuratzeko. Añorgak eta Bizkerrek dolu handia izan zuten, eta, azkenean, gipuzkoarrei mesede egin zien, puntu bateko aldea



lehen postuetan sartu den bakarra. Euskal Federazioko hiru talde dira, eta zeregin handia izan dute guztiek.

Zalantzarik gabe, onena Athletic Club B izan da. Pandemiaren ondorioz jokatu ezin izan ziren azken zortzi jardunaldiak falta zirela, lehen postuan zegoen, eta bi puntu ateratzen zizkion Eibar taldeari.

Azpitzapelketa horri esker, Eibarrek Lehen Mailara igo ahal izan du, mugarri historikoa, gure Federazioari emakumezkoen elitean hiru talde izateko aukera emango diona.

Kategoria horretako hirugarren euskal taldeak ere, Alavesek, postu garrantzitsuetako bat zuen, bosgarren postuan baitzegoen, laugarren sailkatuarekin (Osasunarekin) berdinduta, urteko sari nagusia irabazi zuten gipuzkoarrek soilik bost puntu ateratzen zizkietela.

baizik ez baitzuten osasun-pandemiaren ondorioz geldialdia iritsi zenean. Postu horri esker, igotzeko promozioa jokatu ahal izan zuten, baina lehen txandan 1-0 galdu ziren Valentziako UD Aldaiaren aurrean.

San Ignacio ere nabarmendu zen, eta, azkenean, hirugarren postua lortu zuen, nahiz eta liderretik sei puntura geratu; Arratia ere borrokan aritu zen goiko aldean, eta bosgarren postua lortu zuen meritu handiz.

Bestalde, Euskal Ligan Real Sociedad B erritmo bizian aritu zen, eta, horrela, jarraitzaileei galarazi zien lidergoa lortzen lehia-tzea. Errealeko filialak jokaturako 23 partidetatik bakarra galdu zuen eta beste bat berdindu zuen. Horrek Lehen Maila Nazionalean igotzeko aukera eman zion, Eibar B (zortzi puntura) eta Erandioko Betiko taldeen aurretik (hamalau puntura). Hala Lehen Mailan, nola Euskal Ligan, ez da talde bakar bat ere jaitsiko.

OTXARTABE LEHENA AMAITU DA 2. B MAILAN, BAINA 2. MAILARA IGOTZEKO SARIRIK GABE GERATU DA

Ahazteko zaila izango da Otxartaberen denboraldia. Talde bizkaitarra lehen sailkatua izan zen Bigarren Mailako B multzoan, eta igoeratik gertu geratu zen.

zioa jokatzeko sailkatu ere. Promozioan, Tafatrans Tafalla gainditu zuen finalerdietan, baina finalean erori zen Benaventeren aurrean, baina horrek ez du esan nahi lan handia egin zuenik. Lehen postuari esker, hurrengo

denboraldian Errege Kopan jokatzeko sailkatuko da, eta hori lortu duen euskal talde bakarra da.

Bilbotarrek aurten jokatu dute, lehen txanda Guardoaren aurrean gainditu eta Talaveraren aurka erorita. Bestalde, Ibarrek eta Zierbenak denboraldi irregularra izan dute, lehen buelta oso ona izan baita, baina bigarrenen behera egin baitute. Horrek kopa-lehiaketarako sailkatzea eragotzi die, azken kanpainetan lortu izan badute ere.

Azkenik, Laskorain eta Kukuiaga Etxebarri hasiberria borrokan aritu ziren mailari eusteko, eta lortu egin zuten, pandemiaren ondorioz ez baita jaitsierarik izan.

Fran Rodríguez

Historikoa izan da Otxartabek Bigarren B Mailan jokatu duen denboraldia. Bilboko taldea, kategoria horretan bi denboraldi eskas eginda, bere multzoko lehen postuan amaitu zen, bai eta Bigarren Mailara igotzeko promo-



BILBO CFS DESAGERTU EGIN DA

Euskal areto-futbol-eko albisterik txarrrena, ezbairik gabe, Bilbo klub historiko eta adierazgarriaren desagerpena izan da. Gaur egun, emakumezkoen taldea maila gorenean aritzen zen, hau da, Lehen Mailan, eta urte askoan gizonezkoen lehen taldea erreferente izan da Erkidego osoan, eta denboraldi batez Ohorezko Mailan ere lehiatu zen.

GORA BIGARREN B MAILARA IGO DA, ETA LABASTIDA ETA TOLOSALA HIRUGARRENARA

Hirugarren Mailan, Gora Bilbaok lehen postuan amaitu zuen Hliga erregularra, eta, horrenbestez, Bigarren B Mailara igotzeko promozioa egiteko sailkatu zen, bigarren postuan geratu zen Durangoko Sasikoarekin batera. Alabaina, azkenik, Durangoko taldeak promozioa lehiazteko ez inskribatzea erabaki zuen, eta, hortaz, azkenean bilbotarrek lortu dute igoera.

Bestalde, Euskal Ligan denboraldi honetan bi maila-igoera zeuden hitzartuta. Eta, oraingo honetan, bi plazak azken bi denboraldietan lortzekotan izan den Arabako Labastida Atenea eta bigarren postuan amaitu den Gipuzkoako Tolosala taldeentzat izan dira. Hirugarren mailan eta Euskal Ligan, aldiz, ez da jaitsierarik izan. Euskal Ligara igo dira Arabako Arkaute, eta Pozgarri eta Otxartabe B bizkaitarrak.

EMAKUMEZKOEN GORA 2. MAILARA IGO DA, ETA GAZTEEN KATEGORIAKO ITURRIONDO OHOREZKO MAILARA

Gora nesken taldea -bere lehen denboraldian- eta Bilboko Iturriondo taldea dira Emakumezkoen Bigarren Mailara eta Gazteen Nazionalera igotzea lortu duten euskal taldeak.

Fran Rodríguez

Bizkaiko bi taldek lortu dute Euskadi lehiaketa nazionaletan ordezkatzeari hurrengo denboraldian. Emakumezkoen kategorian, Gora Bilbao, bere lehen denboraldian, Bigarren Mailara igoko da, eta gazteen kategorian, berriz, Iturriondo izango da Nazionalen jokatu duena.

Kategoria horretan, gainera, Zierbenak lortu duen lehen postu bikaina nabarmendu behar da. Otxartabe, Gora eta Elorrietako hasiberriak ere lan polita egin zuten.



Emakumezkoen Gora taldea

EUSKAL BATZORDEAREN HILEKO BOLETINA

Areto-futboleko Euskal Batzordeak, hilerero egiten diren jarduerak eta berrien inguruko informazioa zabaltzeko boletín digital bat sortu du.



Gazteen kategoriako Iturriondo



www.surne.es

¿Cuánta seguridad necesitas?

No podemos asegurar que tu equipo gane este fin de semana...

En cambio podemos ofrecerte la tranquilidad de estar siempre protegido. Con Surne tienes el seguro que se adapta a ti y a tus necesidades para todo lo que quieres proteger.

- Vida
- Jubilación
- Dependencia
- Baja diaria
- EPSV
- Autónomos
- Accidentes
- Ahorro
- Inversión

cmb
bizkaiko medikuen elkargoa
colegio de médicos de bizkaia
SEGUROS
ASEGURU-ARTEKARITZA S.M.
CORREDORIA DE SEGUROS S.L.

surne
seguros & pensiones

BILBAO
Cardenal Gardoki, 1
48008 Bilbao
944 792 200

SAN SEBASTIÁN,
Easo, 7 · 1º D
20006 San Sebastián
943 430 798

EUSKAL HERRIKO ENTRENATZAILEAK GOI MAILAKO LEHIAKETAN

Mikel Etxarri

Denboraldi berriaren hasieran, kategoria guztietako Euskal Herriko entrenatzaileak zoriondu nahi ditugu, eta espero dugu lehiaketa guztiak ondo burutu ahal izatea, osasunari dagokionez ezartzen diren segurtasun-bitartekoekin.

Gogora ekarri nahi ditugu prestaketaren arduradun gisa Euskal Herriko entrenatzaileak dituzten eliteko talde ugariak, ziu-rrena izenen batek ihes egingo digun arren. Hala, Espainiako Ligan 7 talde daude: Sevilla Lope-teregirekin; Valentzia Javi Gra-ciarekin; Villarreal Emery eta Idiakezekin; Osasuna Arrasate eta Alkizarekin; Eibar Mendilibar eta Andoni Azkargortarekin; Real Sociedad Imanol eta Labakarekin;



Athletic Club Gaizka Garita-norekin eta Ferreirarekin. Bide batez, Lopetegi zoriondu nahi du-gu, Sevilla 2019-20ko Uefa Lea-gue-ko txapelduna izatea lortu baitu. Zorionak!

Atzerrian dauden Euskal Herriko entrenatzaileei dago-kienez, hauek ditugu: Mikel Ar-

teta Ingalaterrako Arsenalen; Beñat San José Belgikako KAS Eupenen; Paco Ayestarán Portu-galgo Tondelan; Lotina Japoniako Cerezo Osakan; Aitor Karanka Ingalaterrako Birmingham Cityn; Vicuña “Kibu” Indiako Kerala Blastersen, Juanma Lillo bigarrena Manchester Cityn. Arteta ere zo-riiondu nahi dugu, Arsenal tal-dearekin 2020ko Ingalaterrako Kopa (FA Cup) eta Community Shield lortzeagatik. Zorionak!

Animoak eman nahi dizkiegu entrenatzaile guztiei eta, orobat, hainbat taldetako kide teknikoei, hala nola atezainen entrenatzailei, metodologoei, analistei, pres-tatzaile fisikoei, psikologoei, errehabilitatzaileei, zerbitzu me-dikoei eta abarri. Segi dezaten bere eginkizunen bidez euskal pa-biloia goi-mailan uzten. Zorte on guztioi!

Receta Médica Histórica del Balneario de Alzola

Estas aguas son sin rival para los cólicos nefríticos.

ELIMINA Y EXPULSA LOS CALCULOS

- Disuelve el ácido úrico.
- Depura la sangre.
- Combate el artritis.

Deben además usarse en las manifestaciones nefríticas: cólicos nefríticos, cálculos y arenillas en la vejiga y riñones.

Imprescindible en los tratamientos de Reuma y Gota.

Estas aguas que brotan a una temperatura de 30 grados centígrados y son marcadamente litínicas y eminentemente radioactivas, de reputación universal y sin competencia en España por su poderosa acción digestiva, sedante, diurética y eliminadora, se hallan altamente indicadas en todas las afecciones que queden señaladas.

AGUAS DE ALZOLA

PREMIADAS CON VARIAS MEDALLAS Y EN LA EXPOSICION DE BUENOS AIRES EN 1911 CON DIPLOMA DE HONOR

ANÁLISIS QUÍMICO		Grs. por litro
Oxígeno		0.00210
Nitrogeno		0.01556
Hidrogeno		0.00308
Anhídrido carbonico		0.01805
Cloruro de sodio		0.09800
de potasio		0.00115
de litio		0.00252
Sulfato calcico		0.02930
Bicarbonato calcico		0.18815
magnesico		0.03491
estronico	Indicios	
alcalino	Indicios	
ferroso	Indicios	
Fosfato calcico		0.00130
Siliceo aluminico		0.00340
Silice libre		0.00920
Nitrato de calcio o sodico	Indicios	
Materia organica	Indicios	

ALZOLA Guipuzcoa ESPAÑA
DECLARADAS DE UTILIDAD PUBLICA EL AÑO 1843

MODO DE USARLAS

Póngase la botella al baño de María hasta que su contenido adquiera una temperatura de 30 grados centígrados.

Dosis: En ayunas, y con intervalos de 20 minutos, se tomarán 3 vasos de a 200 gramos de cabida cada uno. Veinte minutos después del último vaso puede desayunarse según costumbre. Una hora antes de la comida se volverá a tomar otra porción de 200 gramos, y una hora antes de la cena el resto del contenido de la botella.

Si en principio estas dosis resultasen demasiado fuertes, consúltese al facultativo de cabecera para que indique al enfermo las dosis mínimas con que debe empezar el tratamiento.

El agua de Alzola se expende en cajas de a 25 botellas de un litro de capacidad, debiéndose tomar seguida y diariamente la mitad del contenido de la caja, y previo descanso de ocho o diez días, continuar en la misma forma con el resto de la misma.

Para toda clase de detalles e informes, diríjase a la Administración del Balneario de Alzola, Guipúzcoa.

Temporada oficial balnearia: 15 Junio al 15 Octubre. - Línea férrea de San Sebastián a Bilbao, con estación propia.



DONOSTIÁN

31 DE AGOSTO, 16
Tf.: 943 429 390

NARRICA, 16
Tf.: 943 422 681

SAN JERONIMO, 17
Tf.: 943 420 919

AYESTARÁN



**JOYERÍA AYESTARÁN
CON EL DEPORTE
EUSKALDUN**

Ibéricos deluxé

Delicatessen

**ESPECIALISTAS
EN CORTE DE JAMÓN EN EVENTOS
(BODAS, COMUNIONES...)**



Tienda situada en
San Sebastián (Donostia)
Calle Narrika nº 31 Parte Vieja
Telf.: 943 423 849

www.ibericosdeluxe.com

MISIÓN NOS GUSTA EL FÚTBOL

MOCHILA
DE REGALO*

TARJETA
VISA
NAUTALIA
GRATIS*

PRECIOS
Y DTOS.
ESPECIALES*
PARA JUGADORES
Y FAMILIARES

MEJOR
PRECIO*
GARANTIZADO

FINANCIACIÓN
HASTA
EN **10** MESES**

**VUELTAS** DAN
MUCHA **VIDA**



NAUTALIA
Bidaiak

*Consulta condiciones de estas promociones en nuestras oficinas. **Consulta condiciones de financiación sujeta a estudio y aprobación por parte de Santander Consumer Finance S.A.

Pásate por nuestras oficinas y pregúntanos.

BIZKAIA | Bilbao | Gran Vía, 75. T. 946 424 348 | Pza. San Fco. Javier, 1. T. 946 404 028 | Luis Power, 28 (Deusto). T. 946 438 003 | Pza. Santiago, 3 (Casco Viejo). T. 946 414 010 | Las Arenas | Mayor, 4. T. 946 424 682 | Basauri | Pedro Bilbao, 2. T. 946 414 508 | Galdakao | Juan Bautista Uriarte, 31. T. 946 416 405 | **ARABA** | Vitoria | CC Boulevard. T. 945 103 097 | **GIPUZKOA** | San Sebastián | Urbietta, 47. T. 943 104 924 | Irun | Pz. J.R. Agirretxe, 3. T. 943 104 342 | Eibar | Bidebarrieta, 18. T. 943 108 960 | Rentería | Av. Navarra, 63. T. 943 104 344 | Urretxu | Labeaga, 41. T. 943 109 878 | **NAFARROA** | Pamplona | Serafín Olave, 15. T. 948 104 638